

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Ganberrismoaren atzeko azterketa sakona



**En zugzwang.**  
Bizardunak.  
Gor.  
Iraupena: 57'56".  
10 euro.

PAREKORIK EZ DAUKAN Iruñeko –nongo bestela?– talde honek astero areto, gaztetxe eta plazak jendez, kritika zorrotzez eta garagaroz blaitzen jarraitzen du. Beraiek asmatutako Folk Radical Vasco delako etiketapean estreinako lanak lagunduta bazter guztiak astindu zituzten hitz pozoitsu bezain oldarkorrekin eta Irlandako folk ganberroena bere eginez. Bigarren lan honekin ere “iraultza pertsonala” egiten jarraitzen dute eta ez dira batere

kikildu, ez horixe. Musikari zehatz errepertzen badiogu, baina, oraingoan Irlandako eta Euskal Herriko folk tradizioaletan gehiago murgildu dira eta abestiak sakonago lantzeaz gain, moldaketak ere ugaritu egin dira. Hala, diskoan zuzeneko beste aldea erakutsi digute. Beraiek, ordea, honako hau disko punkyagotzat daukate. Beraiei kontra egiten ausartuko?

[www.myspace.com/bizardunak](http://www.myspace.com/bizardunak)

Jose Maria Carlos - Bizardunak

## «Espainiako ezkertiarrek Boliviatik, Venezuelatik edo gipuzkoarrendandik ikasi beharko lukete»

“Inguratutako irla honetatik mugitzen ez banaiz, goseak hilko nau”... Politikoki zauden tokia arriskutsua izan daiteke. Baina ihes egiterakoan, pertsona bera al zara? Askorentzat kontzientzia aldakorra izan daiteke; guretzat, berriz, deabruaren ideiarik nazkanteena.

“Belaunikaldiek utzitako zuloetan landatuko ditugu haziak”.

Navarristez ari gara, UPNko traidoreez. Bilduren kontuak izugarri pozten gaitu, baina “real-politik” kontzeptuaren arriskupean kokatuko dira koalizio horren zenbait ideia eta jarrera historiko.

“Amerikara alde egitea” da irtenbidea?

Munduan ez dago paradisuirik. Hemen egin beharko dugu guda soziala. Internazionalismoa erretorika hutsa da, bakoitzak bere kolektibitatea salba-

tu behar du, Nietzscheren eta Eskorbutoren “todos contra todos” ideiarri jarraituz. Badira gaur justizia soziala bilatzen duten estatuak, adibidez, Latinoamerikan. Hor daude gure bihotzak.

M15 delakoek ulertu dituzte nafarren nahi eta premiak?

Espainiar ezkertiarrek benetako alderdi komunista behar du eta ez halako ergelkeria. Bolivia edo Venezuelatik ikas dezakete eta zergatik

ez, gipuzkoarrendandik. Argi dago zein den bidea: herriz herri lan egin, gizartea politizatu eta hauteskundeetan indarra erakutsi. Irabazi eta gero legistatu. Hugo Chavezek bezala. Hau da XXI. mendeko iraultza.

“Ez dakit ADNa edo MDMA den...” gisako esaldi-perlek erakusten dute hankak dituzuela modernitatean eta tradizioan...

Orainaldia iraganaren semea da. Iragana ulertu ezinik dabilzanak

ez dute inoiz oraina ulertuko. Guk iragana aztertu dugu kulturalki, musikalki, historikoki eta politikoki, proiektua gauzatzeko. Ez gara talde cool bat, ez gara unibertsitatean joan, ez dugu musika elektronikoa erabiltzen eta ez gara PSO-Eren mugimendu indie horren titietatik elikatzen, baina egiatik hurbilago gaude, ez izan zalantzarik. ■

